



**Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna**

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ALDEKO ADIERAZPENA

**Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko
Zuzendaritza Batzordeak, 2003-ko otsailaren 24-
an egindako premiazko bilkuran, ondoko
adierazpena egitea erabaki zuen aho batez:**

BAT.- Larramendi Bazkunak bere gaitzespenik sendoena adierazten du Euskaldunon Egunkariaren itxiera bortitzaren aurrean, zuriezina baiteritzo neurri horretako erabaki bati, eta bere elkartasun osoa adierazten die Euskaldunon Egunkariko langile eta lankide guztiei.

BI.- Bere gaitzespenik sendoena adierazten du Egunkariaren aurkako epailearen ekintzan atxiloturiko lagunek jasan behar izan duten tratu umiliagarriagatik, zeina iraingarri gertatzen baita euskaltzaleentzat haietako asko egungo euskalgintzaren eragile nagusi direnez gero. Elkartasuna adierazi nahi die haien senitarteko, lankide eta lagun guztiei.

HIRU.- Bere gaitzespenik sendoena adierazten du Pello Zubiria kazetariak jasan duen gizatzarkeriazko tratuaurrean, eta elkartasuna adierazten die bere emazte eta seme-alabei, senitarteko eta lagunei eta ARGIA aldizkariko lankideei.

LAU.- Euskal Kulturgintzaren bidegile diren Martin Ugalde gure ohorezko lehendakariari eta Joxemi Zumalabe eta Joseba Jakaren senitartekoei aurrezki eta banku kontu guztiak eta ondasunak blokeatu izana gaitzesten dugu, Larramendi Bazkunaren elkartasuna eta atxekimendua adieraziz Martin Ugaldiari eta Zumalabe eta Jakaren senitartekoei.

BOST.- Azkenik, Larramendi Bazkunak eta Aiurri aldizkariak dei berezia egiten diete Euskal Herriko Euskara Elkarte eta Herri Komunikabide guztiei elkarrekin ekimen bateratua antola dezaten euskarazko egunkariak berriro ere argia ikus dezan, horretarako bat eginez Euskaldunon Egunkariko langileekin.

Beterri-Aiztondo, 2003, otsailak 24.